

"Hildakoen Entziklopedia"

Danilo Kis

euskaratzailea: Monika Etxeberria

Alberdania / Elkar, 2006

Idazle batzuk garaiz hiltzen dira, edo garaiz hiltzen jakiten dute. Danilo Kis (1935-1989), esaterako, ikusi zituenak ikusirik ez baitzuen ikusi ikuskizunaren azken emanaldia, Jugoslaviaren suntsipena. Egia da gertaera latzak ikusiak zituela, faszista hungariarrek judu eta serbiarrak hiltzen, jaioterrian, aita Auschwitzera eramaten, 1944ean. Ikusia zuen *Hilobi bat Boris Davidovitxentzat* epaitua izan zela eta liburuarekin batera epaitzen zutela egilea (10 urteko kartzela-zigorra eskatu zuten). Anatomia Irakasgaia da ondorioz idatzitako liburua. 1979an Parisen bizitzea erabaki zuen; Parisen bizitzea eta Parisen hiltzea, bere buruaz beste (edo besta) eginez. Minbizia zuen. Herioren laguna zen aspaldidanik. Ez zuen Jugoslavia odolusten ikusi. Zorionekoa izan zen.

*Hilobi bat Boris Davidovitxentzat* da idatzi zuen libururik onena. Hantxe daude, gero beste liburuetan hedatuko dituen baliabideak: errealitatearekiko harreman poetikoa, generoaz haratago joateko irrika, literatura osotasunean hartzeko gogo. Borgesen erara. Izan ere, Danilo Kisek ironiaz, mundua bitan banatzen zuen Borges aurretikoa eta gerokoa. Memoriaren indarra goraiatzeko zuten biek ala biek, memoria letra bihurturik, testu, bizitza gainditzen duen bizitza.

Danilo Kisen testu guztiek memoria dute abiapuntu, helburu ere bai. Baina nola azaldu ororena den memoria, ororena den historia; nola bihurtu ororen memoria literatura; nola itxi hori dena liburu batean, izanik liburu zerbait pertsonala, partikularra, indibiduala. Galdera horiek guztiak zituen Danilo Kisek hasieratik, eta horregatik aukeratu zuen, Borgesekiko zorrak kitatu ostean, oso berea eta oso berezia izango zuen estiloa: polifonikoa, anitza, barrokoa ere bai, ironikoa, hibridoa, zatikatua.

Baina liburu hau irakurrita esan dezakegu inork ez duela Danilo Kisek bezala idazten, inork ez diola memoriari berak adina etekinik ateratzen.

*El Diario Vasco*, 2006-03-10